# Dominica 2.ª de Adviento.

Cum audisset Joanes in vinculis opera Christi. Math. 11. ex vers. 2. usque ad 10. inclusive.

Are da, nere fielac, Evangelioco letria, eta bere condaira sencilloaz bacarric, aurquitcen naz saraturia nire aruntoan. Ya danoat esanic, ecurtear S.n Juan Bautistac bere discipulubac envidiaco vicio infernalaz, ifini ebela cuidadunic andienâ iteco libre eta sano achaquia oneti, erta nire zeloa Precursore sagradubena leguezcoa; Baña bai hâ bera obligacinoá daucadana, evangelioco ministro leguez: idesguino nene ere procurasco dot, Bautista sagradubac leguez, guentceria ceuben biotzetati vicio nagusi au; eta procedietaco claridadeaz, ecuri eraguingo deut zubet lecenengo, cer dan envidia, eta vicio infernal onec caucetan dituban daño eriotzcoac; eta bigarren erremedioric eficacenac, ceintzuguin baliauguindesque sanetaco, edo preservetaco contagio oneti.

Beguiratuco baleuste Guizonac Ceruco gauzai corresponditan estimacioaz, eta trataduco balitube igualguiro lurreco gauzac merecietan dauben menosprezaz, cé cieztu dan, envidiac izango lenguiala lecuguchiren biotcetan! Da envidiaren subitrai ja, dio Apostolubac, gloria vanoa, eta nola guizon gustiac dirabanoac mundaban, cegaiti billatcen eztaube guciago, gozande diru dienac baño, menospreciatan dituela eternoac; dator idesguino, gustioc ere diriala envidiosoac. O embidia, envidia! Cé esguiña dago nun eldu ez zarian bot.tara subitrai ondocoyac? Ecuri dai gun cer dan envidia, eta onela bacochac esautu daigue vicio onec reinetan dabenbere biotcean.

Envidiá da, nere fielac, esacurtendavena leguez S.to Thomasoc, iñoren onaren tristera desordenatu bat, figuretan dala guizona bestiac gozetan daben ontazun edo excelenciagaiti, guchiguetarsacola

bexia. Au da propiamente esaten deutzaguna envidia, sarri pecatu capitaletati bat, eta ceñen efectoac ixapoten naz txatetan; baña noxe ponderadoac daigue. nola dixian ceuxaçan.

Alaoac dixa, nexe fielac, daña esquerqueac, causetan ditubana envidi aco vicio infernalac, ecé dixudi Guraso Santubac eztaubela topetan vocic ponderetaco: Sn Basilioc deitu eutzan naturalecien pertea; Sn Juan Chrisostomoc guizeraileaxen ama; Sn Agustinec sii exnetzallea, consumietan davena guztia; Sn Cipxianoc galguezeen iturria; eta semesanza one taxa beste Guraso Santubac; ciextuba da envidiati sayoten diriala, eta sayo diriala pensadu ditesqueen desdichaxic naxcagarrienac. ixacurri daigun espada escritura dempora diferentetati eta ecurrio dogu claridadeaz.

Mundueo leenengo guizona, Adan ezquero, izan zan cain, eta au izan zan exe leenengoa, ceñegan reinadu eben envidiac, eta alaco bxidagabetazunaz, ece ecusteaz, Jaincoac, artuebela Abel bere anaien sacrificioa, eta estimetan ezebela bexia, embidiaz betenic, eta sufritu ezin zala berbera, quendu eutzan umanezquiro vicia. Josefen anaietan exe topetandogu, envidiagaiti persequidu eubela, saldu artean azquenez esclavo leguez Ysmaelitai. ecusten ebela Achitophelec Absalonec ezebela sarraiquetan bere consejuba, chuliena espada, bota zan soxi gaitcic andienera, bada urcatu zan berbera. Dario Exequeen Principeac, eta Satrapac, envidiosoac ecustez Daniel aimberte dignidade eta pri vanzar. persona exrialaz, etcirian quelditu, lograda euben artean exrequeandic, aguindu eguian botetia Leoiac gana, satitu eguien, sucedidu bazan exe contraxa Jaunen providencia altubagaiti. Baña certaraco cansetan naz? Nox contatu daigue galgueza guztiac contetan dana Testamentu Sarrian producidu dituba envidiac? Egui az, ece dira innumerableac.

Yxago paitecen legue barriña, dana promulgadu ebena Jesu Christo gure Redemptoreac; beraganan ez iguingarriac topadaco ortitugo vicio onen? Asiten dala Legisladore supremo agandi

beragandi, eztaquigu Sacerdoteen Principeac, eta Escribac, ecurteaz Jesuchristoc eguiten cituban mirariac, eta umeac emoten eutsen deadarrac, envidias beteric indignadu ciriala ezinda gueiagorano? Eztaquigu Pilatoen berarem confesinoz, Escriben, eta Fariseoen envi diac padecidu eraguin eutzala Jesu Christori aimberte desprecio, tor mentu, afrenta, eta eriotcerano berberaño? Eztaquigu, Seme Prodigoen Anaiac, ecurteaz jatequeta, ceñegaz celebretan eban bere Aitac Seme galdu aren etorrera ona, envidiosoa demostracino onen fantcirala inar arако extremuban, nola bear izan ciñan bere Aitaren berarem suplicaric biguinenac, eta reconvencioric amoro soenac, solequetaco? Eztaquigu ce amorrera, eta furiara eldu zan Judeguben eta gentileen envidia Apostolu Santuben contra, eta Jesu Christoren beste Disipuluben, envidiosoac Jaincoac obre tan citubala eurcagaiti aimberte mirari, eta prodigio? Yzango litzateque ez iños acabetia esan bear banitu envidiac causadu dituban daño esquerguecc, eta ceintzuben noticia daucagu, ala Legue Sarrian, nola Legue barrian.

Da envidiosoa, nere fielac, alaco condinocoa, ecé conoce tzetandau iñoren felicidadea daño propioan, ez bacarric ani ma pobrien daño espiritualegan, ecuridoruben Leguez esemplu aseo tan; ezpada ere gorputcen berarem daño temporalegan, cegaiti envidiac, dio Salvianoc, atormentetan dau envidiosoen viotza, sen cietan deutzala castiguric andienen; iparturen ditu bere azurrac, eta ustelguetan deutzo, dio espiritu Santubac; datorcola emeti ez guchitan viciaren berarem galtcea. Cegaiti alacoa da pena, aimberte bere angustia, aimberte bere dolorea, aimberte bere tristeza, ecé berdigu cruel leguez atormetetan da berbera, eta alaco gogor tasunaz, dio Sn Ciprianoc, ecé topetan eztau gustoric janarian ez edarian, ezpada ecé gustia da suspiretia, eta egunez eta gabez padecietea, bacarric topetan dau alivioren bat, advertietan

davenean bere proximoan desfortunaren bat, cegaiti alaroa da envi
diosoa, dio Sn. Chrisostomoc, ece beguinaguetan ditu iñoren galguerac
irabarte propioac leguez, eta proximoen felizidadea, bere miseria
leguez: eldu daiteque gueiagora ichutaruna? Cé ondo esan eben
Doctore Santubac, clase onetaco genteac apartadu bear tiratequea
la guizoneen comerciotí, genero humano gustien etsaiac leguec,
eguiten dana leguez chaurr amorratubaquin galdu eztaguien besteac.
O vicio infernala! o vicio diabolicoa ecé onela deitu eutzan Sn. Agus
tinec! egon dedilla guizona, conventitu gura daiguiana iñoren
onac eta gachac tormentu propioetan! Zoraqueria da, eta zora
gueria izanic ecustendogu egunero envidiosogan.

Gueitu eguiozube, bada, oni eztatorcola utilidaderic bapere: bes
te vicioac dacarde ontaunen bat, izango bada ere vanoa, eta ins
tantecoa, bada avaroac topetan dau bere interesa, golosoac bere
gustoa, sensualac gozamena, sovervioac eta ambicioloac honrria;
baña envidiosoac cer irabarten dau, edo cer emoten deutce envidio
so izanagaiti? Cé interes ce provechu alcancetan dau? baperez
por ciento, dio Sn. Juan Chrisostomoc, eta onela ber berearen tira
no izanaz ostean, duan darsa Diabrubac. Pescadoriac ertalduten
dau amuba cebuaz, cegaiti botetara aguirian arrain batec ere
ez leuque jango; eta manea onegaz beragaz balietan da ordina
riamente Demonioa, bada perguetaco sovervioa, ertalduten dau
exiotcien amuba honrrien cebuaz; perguetaco avarientoa, ertaldu
ten dau amuba, interesien cebuaz; perguetaco torpia eta destro
nestoa, ertalduten dau amuba gozamenen cebuaz; eta envidiosoa
izan dedilla ain ichuba, eta ain juicio bagueca, eguindaguiala berac,
eguingo ez leuguiena criatura irracional batzuc nola dirian arrai
ñac, iragoten dala jatera pillotic dagoan amuba, eztaucana intere
sic, ez deleiteric, ez honrraric, ez ontarunic bapere! da cembatera

eldudeitegueean ichutazuna.

Ce remedio, bada? Sn Basilioc esan eben, ez egoala envidiosoentzat; da esatea diziala piscabat guehiago sendaeciñac baño; eta onela pintetan ditu, eta contempletan ditu ere Sn Juan Chrisostomoc; cegaiti lotza dizian aguentuteco euren envidia, dalaco animo basubera euquitea, eta nola estalguetan dauben euren zauzija, Medicubac ezin curatu daigue.

Baña nola eztagoan vici onetan viciozic bat ere guztiz sendaeciña, dalaco facil Jaincoari, imposible deritzuena guizonac, izan bedi lecenengo remedioa, beguiraguetea despreciosaz vici onetaco ondasunac, eta lagunguetan deuten honrria, consideretan dala temporal gustia dala ecezeza eternoen comparacinoan. Honrraco guizonac, eta distinguidubac ezpadauco dendari baten, edo Zapatari baten honrrien envidiaric, andierac izanagaiti bata ta bestea euren oficiuetan, cegaiti dauco eta beguiraguetan ditu gauza oneec basubac leguez, eta indignoac bere noblecien, badira ere bea rrezcoac iragoteco vicia; ce razuan cabietan da, izanic Christinaubа Jaincoen Semea, eta maiorazgo eternoen heredenoa, euquico dabela envidia, ecusteati besteac honrradubac ondasun temporal oneen posesinoaz, bada eguiáz dira basubac, eta villac bere animen barrubаn dituban, eta vici eternoan esperetan dituban eeen compa racinoan.

Gucitu eguiozube oni ceuben consusinoraco, felicidade lurre coacgaiti, nun fundetan dan regularmente envidia, galcen diziala gucienetan ceruco ondasunac. Bada ce zoraqueria andiagoa, envidietea baño, eguiac dañatu zaigueana? pensadu eguizu atencinoaz egui au, eta ecusico dozu practicamente, barana guerrero diestroa David leguez, eztozula bean beste armaric evateco buruba Goliat Giganteari, bere berarен espatia baño; Consideratubaz bacarric

felicidadeac zurac, ceintzuben envidia daucazu orain, izanditez quebla zure galquezaraco, ertod dudetan queldituco zariana garbia eta sanoa gairotazun ain infameti.

Berte remedio eficacisimo bat invidiaren contra, eta com prendietan dituban remedio guztiac, da caridade elcarduna egon bear dana Christinadu guztien artean. arcal amaduzatece, cijuan S.^n Pablo Apostolubac: cegaiti ametan davenac ciotceti bere proximoa cumplidu dau leguea; bada precepto guztiac sume tan dira verva onetan, amaduco dozu zure proximoa zu ceroni le guez; cegaiti proximoen amodioac eztau eguiten gauza dongaric, eta leguien cumplimentuba da amodioa. o ce leccinoa, nere fielac! o eta quelditaco balitza imprimiduta gure bulaarnetan! ce cieztu dan saniaduco guiñatequeala envidiaco vicio infernaleti. Yñor ere ezta egongo ~~desiritan deu~~ gurà deutzanic ber berari gachic chiguinena ere, ezta tristetuco danic bere zori onetan; videsquiro amaduco baguen proximoa gu gueure leguez, por taduco guinateque alare beragaz, eta videsquiro ez leuque ver raduco envidiac.

Genteen Doctoreac comparadu citubar fielac gorputz huma noen miembroaquin; eta cegaiti? reparadu equizube, gorput cen miembroac nola arcal ametan dirian, eta ecurico dozube, bacocha dagoala contentuz Jaincoac ifini eben lecuban; ez buru bac deuste invidiaric escubai, ez escubac oñai, ez oneic buruban; escu batac arteen badau apaingurren bat, ez orregaiti dauco envidi aric berteac; escubac edertuten badaube moruba edo buruba, ez orregaiti dauque envidiaric oñac; ezpada ece lagunduten dira arcali; escu batac lagunduten deutzo generosamente berteari; bijac doaz buruben, eta oñeen apaingarrira; escubatac arteen badau golpe bat, bertia dualaarten socorrietara; arteen badau burubac, edo oñac, escubiac acudietan daube bere alivio, eta socorrura;

gustionetara aurquitcen dira begulac, eta noiz baiten ere miñá com padecidutá quejetan da, lastimetandala berte miembroac padecietan dabenen.

Ó confusino gurea, entzule catolicoac! miembroac gara gor putz mistico baten, dana Jesu Christo; nun bada cabietanda ez teila egon gure artean beintzat amodio ha bera, reinetan dabena gorputz carnalen miembroen artean? Oneec ametan badira amo dio elcardun bategaz, lagun eguiten deutela batzubac berteai, ezto gu gue ere eguin bear razoe reo andiagoaz; gorputcen miembroe tan reinetan ezpadau envidiac, cegaiti bacocha dago contentuz bere suerteaz, ez gara gu ere contentadu bear estadubaz eta fortu niaz, ceñetan ifini gaben Jaincoac, euqui baparic gure proximoen envidiaric? Gorputcen miembroac lagunduten badira, eta socorrie tan badira euren ~~gue~~ Zori onian, eta gaizqui etorrian, gu gariana gorputz andiago baten miembroac, ezta chit justo compadecidu gai tian gueure anacen euren trabajubetan, eta alegradu gaitean eu ren zori oneen? Au izango litzateque, nere fielac, ametia proxi moagu gueroc leguez, eta ebatea buruba beingoan envidiaco vicio infernalari.

Cer falta da, bada, entzule catolicoac? manifestadu deutzubet cer dan envidia, sarri pecatu capitaletati bat: entzun dituzube igualguiro bere efecto auhenganniac, deducidubac escritura Sagradu ti, eta reducidubac substancialmente vicio onegaiti galtcen dirii ala animaren ondasunac, eta gorputzaren ondasunac: proponitu deutzubet azquenez lurreco gustien menosprezia, eta Caridade elcarduna diriala remedioric eficacenac sametaco envidiaco gaito tarunti; cer falta da, bada, irtea baño vicio infame oni? gur tioc badacaugu jatorria gurasso batzuc gandi, izan ciriranac Adan, eta Eva; gustioc badaucagu aita espiritual bat, dana

Jaincoa, Ama bat, dana Eliza, eta anae comun bat, dana Je
su Christo; anaiac leguez gustioc bagara deituac herencia batera,
dana Ceubetaco Reynuba, nun anaiac leguez vicitu gaitian gus
tioc eche baten ondarun guztien participacino elcandurraz, cegai
ti gustioc dira comunac, cé razoe egon deiteque vecinadu dagui
an envidiac Christinaduben artean? Yguez eguin daigun, nere fi
elac, envidiati, dio Aita S.n Basilioc, cegaiti bera dan gathi bat era
mezgarria; Yguez eguin daigun envidiati, cegaiti bera dan videa
Ynfernuraco; Yguez eguin daigun arguenez envidiati, cegaiti bera
dan Ceubetaco reynuben privacinoa: Aldadeiteque guciagora mise
ria!

Yrigui eguizu bada beguiac, pecataria, escarmientubac irigui
deguizun baño leenago; ya eusi dozu cé aro condenadudirian
envidiagaiti; guraco dozu zuc ere izan zorigaiti oneen numerocoa?
guraco dozu Jaincoac bota zaguian bere presenciati betico cain
leguez, eta beste aro, irudicatu daguizun penan irudicatu ditu
zurac culpan? ó ertaguiala permititu Ceruba! Cer eguitendozu,
bada, jaquinic daucazula merecidúta castigu au, er bein, erpa
da milla viderª nola ertira sturriac zure beguiac? nola
jausten etzara illic doloraz?

Ea, nire Christinauba, Aldazatez humildemente Jesu Chris
toren oñetara, eta escatu eguiozu misericordia; Jaun au
da favorecidiz zaiquiana; Envidiaz galdu badozu, amodioaz
irabastendozu; envidiaz urrindu bacinian bere presenciati,
Caridade perfectoaz biurtcen zara barriro bere alzora; urra
tu deilla, nere fielac, penaz viotza ofendituagaiti Jainco bat
ain ona.

Baña ay Jesus! ay nire amodioa! au da gracia bat eto

rri deitequeana bacarric berorregandi; animadu bei, bada, Jauna gure bularra bota daguian suspirioric garrazena: ad iuva nos Deus salutaris noster: lagundu beigu, Munduco Redentorea eta Salvadorea, ece ezpada gara galdubac; Berori da gure amparuba, Berori gure consueloa; beguiratu beigu bada, Jauna, benignidadien beguiaquin; eztogu merecietan, eguia da; Baña ija damu dogu, ofenditubagaiti berorren Magestadea: ez culpa gueiago, ez ofensa gueiago; leenago ill pecatu eguin baño; negan eguin daigun gure pecatubac, alcanzetaco gracia. Amen.

MAN670